




BOTERETSUAK

Antzerkia







MÁS MUJERES elkarteko eta Las Poderosas Teatroko
eraikuntza kolektiboa

Testua: Haizea Murguía

Irudia eta maketazioa: Andrea Conde

Protagonistak:

Telma Ajín, Adelma Cifuentes,
Mayra Salvador, Telma Sarceño eta Lesbia Téllez.

Koordinazioa: Cristina Alba Pereda

Edizioa: Clara Ruiz Holguin

Entzuteko ipuinen ahotsa: Haizea Arbide Aza

Euskarazko itzulpena: Lorea Undagoitia Rivero

Katalanezko itzulpena: Agnès Rodríguez Casaled

Komunikazioa eta difusio estrategia: Virginia Enebral

Bidelagunak: Amaia Iguaran eta Yolanda Barco

ISBN: 978-84-09-41638-7

Depósito legal: LG BI 00937-2022

BOTERETSUAK

Antzerkia



Borrokalari bihurtzea, zer egin behar dudan eta zer izan behar dudan esaten ari zaidan abotsa isiltzeko.

Nire bizitzaren alde borrokatzen jarraitzea eta jakitea. Hitzik eta nirekin doazenekin gabe, ez nintzatekeen hemen egongo.

Gertatutakoaz hitz egin baino, bizitakoaz mintzatu. Beste emakume batzuek entzun dezatela, jakin dezatela justizia egin daitekeela eta jarraitu.

PROTAGONISTAK

Telma Ajin



Telma Sarceño



Mayra Salvador



Adelma Cifuentes

lesbia Tellez



An illustration featuring a large, flowing red curtain on the left side, tied back with a white cord and a tassel. The curtain is set against a background of a yellow wall and a blue checkered pattern in the upper right corner. In the lower center, there is a simple wooden chair with a curved back and four legs.

LEHEN EKITALDIA:
ERNAMUINDU

Gure obra benetako gertakari gordinetan,
bizitza bezala, prozesu osoan azala jartzen duten
eta beren historiaren protagonistak diren
hezur-haragizko emakumeengan oinarritzen da;
elkarrekin bidea egin duten emakume indartsu
eta boteretsuengan.

2008an prozesu terapeutiko bat medio
Guatemalan ezagutu ginen.
Bizipenak partekatu ez ezik,
bertan taldearen indarra aurkitu genuen.





Mola buruak tuten tuten arropa probokatzaila hori jantzea? Ken etan orainxe bertan!

Ni etreko kontuak kontrolatzen ditut dirua aparteen duena nitelako, eta len diudinarekin nabiloa da, horrela ez da

Barkatu, et Euzkai berri joa

HIL ZUGIRAK

Et daf nahi, beise gizon batzuekin litzate egiarif, niretzat mola taitut.

ez daf nahi, beise gizon batzuekin litzate egiarif, niretzat mola taitut.

lodia zara, itusia zara. Zorlea duzun nirekin

Agertu ere batzari bera egin duzun? Et zait gaitortzen


Sarkakera goya larria jolaseko duzaf eta horrela

RENTA

Kontrola eta indarkeria,
matxistak eta arrazistak,
eragin egin ziguten.
Gure autonomia, garapen pertsonala
eta soziala mugatuz,
Aske izatea utopia zela sentiaraziz.

Indarkeria horiek gainditzeak lurra ongarritu zuen,
berrituta eta indartsu birsortu ginen,
loreak bezala asfalto patriarkala hautsi,
geure obra berridazteko gai izan,
gure bizitza propioa idatzi
eta gure artearekin,
beste emakume batzuekin bide egin.







Iragan astuna askatu
berriari lekua utziz,
eta barruan betidanik geneukan
zerbait aurkitu:
borrokatzeko indarra.
Ezkatatu ordeztu,
maskarek ahaldu
eta ikustarazi gintuzten

Inoiz baino biziago geunden!



Antzerkirako gure jauzia leuna izan zen:
sinbolikotik errealitatera,
errealitatetik sinbolikora
abiatzen lagunduko zigun
tresna kolektibo baten bila hasi ginen.





Maskaren indar eraldatzailea
bidelagun dugu **Las Poderosas Teatro-n**





Feminizidio gehiagorik ez! Bizirik nahi dugu!



Sexu indarkeriaren aurka, autodefentsa feminista!



Indarkeria psikologikoa identifikatzen laguntzen dugu!
Defendatzailea izatea ez da delitua, eta merezi du.



Indigenen eta afrikar ondorengoen aurkako
diskriminazio eta arrazakeria gehiagorik ez!



indarkeria ekonomiko gehiagorik ez!
ez eta emakumeen gain jartzen den
zainteten gaitzargarik ere!







Adelma bizirik dago, oso bizirik,
antzerkiaren bidez,
borroka, salaketa eta justizia bilakatu den
bere historia elkarbanatzen du.

Senarrak bera akabatzeko hiltzaile bat kontratatu zuen,
baina honek ez zuen lortu.

Alabaina, betiko ondorio fisikoak utzi zizkion.

Guatemalako Feminicidio Legearen bidez

25 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten.

Las Poderosas Teatro. Ahizpatasuna.


Elkar lagundu, babestu eta besarkatzen dugu.

Adelmaren garaipena berezkoa balitz bezala ospatu genuen,
emakume bati justizia egitea

munduko emakume guztiei justizia egitea baita.

berak dioen bezala:

“Ez dago askatasunean bizitzarik inorentzat
guztiontzako bizitza duinik ez badago”.



Pertsonala politikoa denez,
Las Poderosas Teatroko kideok
gorputza, arima eta bihotza
egiten dugun guztian jartzen dugu.
“Las Poderosas” obraren bidez
emakume askoren historia izan daitekeen
gure historia kontatzen dugu.

“Ikusten duzuen emakumea naiz,
emakume guztiak eta haien istorio guztiak naiz,
kontatu dizkidatenak
eta ikusi ditudanak baita.”







BIGARREN EKITALDIA: LORATU

Antzerkiaren bidez askatzen gara,
min eman ziguna erakutsi eta eraldatzen dugu.
Oihala erortzen denean,
antzerki komunitarioak ikusezina ikusarazten du
eta, publikoarekin batera,
ikusitakoaz eta bizitakoaz aritzen gara,
elkarrizketarako eta hausnarketarako tarte irekiz.

Antzerkia bizitzaren ispilu da.
Bertan, pertsona batzuek beren itzala ikus dezakete.

Eta nik indarkeria erabiltzen badut?

Eta nik indarkeria jasaten badut?

Indarkeriak zeharkatzen gaitu,
ikusaraztea geldiarazteko
lehen urratsa da.





Beste emakume batzuen bidelagun gara,
besarkatu eta
babesten ditugu.
Beste errealitate batzuekin
elkarrekin sortzeko unea da.





Indarkeriaz zipriztindutako
historia dugu Guatemalakoa.
Ixil sareko emakumeak
bere istorioa elkarbanatu ziguten.
Haien gorputzak gerra-arma gisa
indarrez hartuak eta kolonizatuak
izan ziren.

Prozesua motela da, baina mugimenduan dago,
justizia iristen ari da.

Sepur Zarcoko amonek
justizia egin zuten baita,
gorputzek memoria dute,
eta oroimenak erreparazioa eta justizia
aurkitu behar ditu.





HIRUGARREN EKITALDIA: HEGALDATU

Emakume askoren istorioak
agerraldietan bilakatzen jarraituko ditugu.
Gu bezala,
bizirik diraute indarkerietatik.
Ez zaitezte oraindik eserlekuetatik jaiki...
hau hasi besterik ez delako egin.





Beste emakume batzuekin batera
Guatemalako, Mexikoko, Honduraseko,
Nikaraguako, Venezuelako, Espainiako...
antzoki, jaialdi eta espazio komunitarioetan
gure bidea ureztatzen eta loratzen dugu.

“Osatzen eta ahalduntzen” gaituen antzerkia
elkarbanatzen dugu, besteekin batera GUa hasten da.

Eta ez gaitzala ezerk geldiarazi!







Gure ametsa beste emakumeak
aske ibiltzen direnean betetzen da.
Beraien ametsak aske betetzeko.
Lan, ikasi, distiratu,
barre, elkarbanatu, abestu, dantzatu.

**Beldurrik gabe bizitzea.
Izan.**





“Lurra gurea da,
gure lurraldea da,
egunero elikatzen eta bustitzen duten
gure haurren itxura du,
emakumeen forma du”.

Lurraren defendatzaileak gara,
eta babestuz
besarkatzen gara.



Bizitza antzerkia delako eta antzerkia bizitza.

Ikuskizunak aurrera jarraitu behar du.

Horregatik, Las Porderosas Teatro ez da gelditzen.

Nork daki non sortuko diren hazi berriak...?





LEHENENGO OBRA: *Las Poderosas*

Antzezlanean antzezten ditugun istorioak indarkeria matxistetatik bizirik atera ginen emakumeon esperientzietan oinarritzen dira. Gutako bakoitzak aukeratuak izan ez ezik, gure hitzetatik eta gorputzetatik birsortutako istorioak dira.

Ikerketa pertsonaleko prozesu batetik abiatzen dira: elkarrizketak, norbere testuak idaztea, ditugun minez jabetzea, pozak eta gure benetako ametsak bilatzea. Lanaren garapenean aspektu biografikoak eta fikziozkoak gurutzatu zaizkigu, talde eta emakume gisa egin dugun bidea agerian utziz.

Bizitzan eta antzerkian. “Gure seme-alabekin partekatzen dugun leku hori, bizi izandakoaren eta eraldatu garenaren aztarnak berreraikitzen diren tokia, norantz joan nahi dugunaren tokia”.



BIGARREN OBRA: *Naciendo*

Gure sexualitateari, gure jatorriari eta gerrari buruzko ikerketa baten parte da. Gure amekin, alabekin, bilobekin eta gatazka armatutik bizirik atera diren emakumeekin hitz egin dugu, gure historiaren aztarnak bilatuz, gure herriarenak, gure gorputzen historiarenak.

Horrela, Sepur Zarcoko destakamendu militarrean sexu-indarkeriatik bizirik atera zen Magdalena andrea antzezten dugu. Baita justizia eta erreparazioaren alde egindako borroka, borroka politikoa, USACeko ikasleen sarraskia, borroka egitea erabaki zuten emakumeak eta baztertu zirenek sentitzen duten errua ere oholtzarazten dugu.

Baina, baita gure historia pertsonalak ere: familian emandako sexu-abusuak, bekatuari lotuta ulertzeagatik ukatutako plazer sexualaren aurkikuntza, indarkeria, abandonua eta auzoetako bizi-baldintzak.



HIRUGARREN OBRA: IN LA K'ÉCH Ni zure beste bat naiz.

Beren komunitateetako giza eskubideen defendatzaileen talde batek beren esperientziak, pentsamenduak eta egiten duten lanean sentitzea azaltzen dute. Emakumeek lurrarekin eta bizitzarekin duten harremana estua da erabat, eta ez da inoiz desagertuko, bizitza haien gorputzetan eta istorioetan dago. Bizitza amaitu ez daiten emakumeek bat egiten dute. Defendatzaile horiek kontatzen dizkiguten hitzetan, beste batzuen kontakizunak ere badaude. Azaldu eta besarkatu egin behar dira, ama, alaba edota amona besarkatzen den bezala. Berdintzat hartzeko apustua da, entzuten jakin ez ditugun ahotsak entzutekoa. Zer esango lukete ibaiek hitz egin ahal izango balute? Zer esango lukete basoek? Zer esango luke lurrak?

Memoriak bidea egiten du...

Guatemalak 36 urteko gerra bizi izan zuen (1960-1996) eta 200.000 pertsona baino gehiago hil ziren, indigenak batez ere.

Guatemalako gobernuak eragindako sarraski, tortura, sexu-bortxaketa eta nahitaezko desplazamenduengatik Ixil Emakumeen Sareak 2012an justizia bilatzeko prozesu bat hasi zuen. Gobernuak estrategia sistematiko militar batean, “Tierra Arrasada” izenekoan, 1982tik 1983ra bitartean 1.771 indigena maia-ixil baino gehiago hil zituen. Rios Monttek, 2013an krimen horien unean presidente izandakoak, genozidioagatik, 80 urteko espetxe-zigorra jaso zuen, baina Gorte Konstituzionalak epaia bertan behera utzi zuen.

2016an, sexu-indarkeriatik eta Guatemalako armadak gerran eragindako beste indarkeria batzuetatik bizirik atera ziren 11 emakumek, “Sepur Zarcoko Amonak”, justiziara jo zuten. Auzitegiak bi ofizial militar ohi zigortu zituen gizateriaren aurkako krimenengatik Sepur Zarcon bortxaketa, hilketa eta esklabotza delituak egiteagatik. 120 eta 240 urteko kartzela-zigorrak ezarri zizkieten ofizial militar ohiei. Honekin batera, auzitegiak Sepur Zarcoko amonei eta haien komunitateei erreparazioak ematea ebatzi zuen.

2016an, Giza Eskubideen Amerikarteko Gortean (CIDH) lehen salaketak jarri ziren. 2022an, 40 urtez justizia bilatzen aritu ondoren, Guatemalako gerran Achí emakume-talde bat bortxatu zuten autodefentsa zibileko bost patruila-kide ohik 30 urteko espetxe-zigorra jaso zuten, gizadiaren betebeharren aurkako delituen erruduntzat jota, sexu-indarkeriaren modalitatean. Guztira, 12 neurri eman ziren emakumeen erreparazio duinerako.

Zergatik da garrantzitsua ipuin hau?

Indarkeria matxistak eta horiek emakumeen bizitzan duten eragina dira gaur egungo arazo iraunkor handienetako bat. Oxfam Intermonek 2022ko otsailean argitaratutako “Hitzetatik haratago” txostenak erakusten du munduko hiru emakumetik batek bikotekideak edo beste pertsona batzuek eragindako indarkeria fisikoa edo sexuala jasaten duela gaur egun. Indarkeria hori goiz hasten da; izan ere, harreman intimoren bat izan duten 15-24 urteko lau emakumetik batek indarkeriazko jokabideak izan ditu bikotekidearen aldetik. Era berean, 15 urtetik gorako 640 milioi emakumek baino gehiagok adierazi dute bikotekidearen indarkeria fisikoa edota sexuala jasan dutela. Indarkeria jasaten duten emakumeen %40k soilik bilatzen dute nolabaiteko laguntza, eta horietako askok ez dute salatzen erasotzailearen errepresalien edo estigma sozialaren beldur direlako.

COVID19 pandemiak eragindako krisiarekin batera, areagotu egin dira emakumeen aurkako indarkeriak. Berrogeialdiak, isolamenduak eta beste neurri murriztaile batzuk direla eta, indarkeria jasaten duten emakumeei laguntza eta babes-mekanismo gutxiago eman zaizkie, eta horietako asko abusatzaile edo erasotzailearekin itxita egon dira.

Gaur egun, 155 herrialdek dute genero-indarkeriari buruzko legeria eta 140k garatu dute lantokiko sexu-jazarpenari buruzko legeria. Hala ere, horiek modu eraginkorrean ezartzea eta horien jarraipena egitea erronkak dira oraindik ere munduko testuinguru gehienetan.

Emakumeen aurkako egiturazko indarkeria tragikoa eta izugarria bada ere, asko gara mundu osoan horren aurka bat eginda borrokatzen dugunak. Mugimendua dago, itxaropena dago. Emakume-sare kontaezinak daude, indarkeria matxisten zirkulutik atera arte beste emakume batzuei eusten dietenak.

La Poderosas Teatro erresistentziaren, gainditzearen eta sendatzearen adibide bat da. Guatemalako emakumeen kolektibo bat da, eta antzerkiaren bidez indarkeria matxisten biktimetatik biziraun zutenetara igaro ziren. 2008an beraien indarkeria-esperientziak oinarri harturik, berauetatik sendatzeko antzezlan bat sortzeko prozesuari ekin zioten.

2010ean estreinatu zuten ‘Las Poderosas’ beraien lehen lana, eta emakumeek aurre egin behar dieten indarkeriei buruz gizartea sentsibilizatzeko tresna indartsua izan zen. Obra horrek bizitza aldatu zien. Orduz geroztik, indarkeria matxistak jasaten dituzten beste emakume batzuekin partekatzen dute antzerkiaren bizipena, sendatze gisa. Era berean, indarkeria horiek komunitatean saihesten laguntzen dute, beren ikuslegoarekin, errepikatu behar ez diren ereduak identifikatuz.

Harrezkero, beste bi obra sortu dituzte, “Naciendo” eta “In La K ‘ech”, emakume guztiek jasandako indarkeriak, bizi izan zutenenak eta gaur egun borrokatzen direnenak lotzen dituzte. Horrela, indarkeria matxisten kontinuuma identifikatzen dute, haien espirala eten daitekeela azpimarratuz, ikuspegi positibo batekin.



GRACIAS. ESKERRIK ASKO. GRÀCIES

(**A**) Agustín Quiles Díaz – Aida – Aina Valldaura – Aitor – Aitor Basauri – Alain – Alejandro y Santiago – Rancano García – Alexia Vieira – Alicia Sanchez – Alvaro e Iñigo – Alvaro Ortega – Amaia – Amaia Iguaran – Amaia Iturri – Amaia Laforga – Amaia y Lucía – Amas – Amaya Algarra – Ana – Ana Bengur – Ana García – Ana González – Ana Paula – Ana Viñuela – Andrea Conde – Ane Albarran – Ane Arregi – Ángela – Angelica Llanos – Anna i Puerto – Antonio del Barrio – Anuka – Anye Rocamundo – Arantxa Pereda Goenaga – Arrieta – Artzal – Augusto Metztl – Aurora Sáez Rodríguez (**B**) Bastur – Bea Pertejo Rivas – Beatriz Asenjo – Beatriz García Fernández – Begoña Landa Petralanda – Blanca Andrés Fernández – Blanca Moreno Salom (**C**) Candela Tamames – Carlos Askunze – Carmen – Carmen Alquegui – Carmen Galbete – Charo Bayon – Clara Ruiz Holguin – Claudia Grau Boscá – Colectiva Caracola Tejedora – Cot Uribe familia – Cristina Alba Pereda – Cristina Blasco – Cristina, Noa y Lua – Cuques Orta Rabinad (**D**) David Hernández – Diego Martínez – Diego Redrejo (**E**) Eduardo García Ribera – Edurne Bengoetxea Sorozabal – Edurne Izaguirre – Ekaitz – El Espejo Mágico – Elena Béjar Galindo – Elisa Ortega Montilla – Enara y Laia – Enmaskarada – Esther Alba Pereda – Estibaliz G Isasa. (**F**) Familia Berciano Velázquez – Fanny Morán – Frida y Gael – Fuencisla Garrofé (**G**) Garbiñe – Gema Lauzirika Oribe – Goiz – Gorka López Arantzamendi – Greta e Ibai – Greta Romero Vilchez (**H**) Haizea Arbide Aza – Haizea Murguía – Henar – Hodeia Núñez (**I**) Iara – Idily Mérida – Idoia Setien Lorente – Inés Tomás Bartrina – Iñigo basauri barruetabeña – Ionan Areses – Irai Carmona Zabala – Iran – Irene – Irene Fernández Ramos – Irene González García – Irene Rojo – Isabel – Isabel Artaza – Isabel Cozar – Isabel Escribano – Itsaso Blázquez – Ixone eta Eihar (**J**) J.E. D.D. – Joan – Jon – Jone Pérez – José Manuel Navarro – Josune Landa Petralanda – Juan Carlos Vázquez – Juana – Júlia Moltó – Linares – JunAia – June Pascual Agirretxea (**K**) Karmele Aza Barruetabeña – Katia Reimberg Castello – Kato – Kerala Alba – Kike Rioz (**L**) Laeticia Rovecchio Antón – Lander Pereiro Landa – Lara Gómez – Laura Espín Ortiz – Lauris – Leire Arano – Leire eta Iñaki – Leire Pascual Basauri – Leire Varona – Leo Trincado Pérez–Arróspide – Leyre Escalada Gollarte – Lola – Lorea y Sustrai Undagoitia – Lourdes Amezuza – Lourdes Carro – Los Picado – Loyal – LRM CIDII – Lucía – Lucía Gonzalez Rodrigo – Lucía Linsalata – Luis Amaro – Luis de Llera – Luis Menéndez – Lutxi Iturriaga (**M**) Macarena – Maialen Ferreira – Maite Barruetabeña Arrieta – Majo Canet – Make&Nerea – Mamen F. – Manuela Pérez – Marai – Mari Sol – María Bejarano – María Fernández de Sanmamed Maneiro – Maria Isabel Holguin Avecilla – Maria Jesús Salinas – María José – María José Vilches – Maria Luz Fernández Enebral – María Rosa Galindo Diaz – María Silva Pérez – Marian González – Mariana González – Mariana – Linceiro – Mariola – Marisa Otaduy Bengoa – Marisa Ozamiz – Marivi Eizaguirre – Marta – Marta Gayoso – Marta Gil – Martha Olimpia Martínez – Martuki – Mavi Calabrese – Mertxe – Miguel Ángel – Jordán – Mila Budinho – Miren Gil Lertxundi – Monika – Myri (**N**) Nahia – Naia y Alba – Naiara Agorria – Nanuca – Naomili – Nekane Sáez – Nerea – Nerea Basauri Barruetabeña – NeretxuVegan – Noemi – Alvarez – Nora Ecenarro Aranburu – Nur Banzi (**O**) Olga Barcina – Olivia Marco (**P**) Paco – Paco Oropesa – Patricia Campelo – Patricia Salado – Pau Gainza – Paula Clar Martí – Pedro C. Rojo Alique – Penelope Berlamas – Pilar – Pilar Minguet Niubò – Pilar Orenes – Possible Lab (**R**) Raquel García Terán – Raquel Rapado Segurado – Regly S. (Las Incorregibles) – Rosa Mancisidor – Roser Allué Villena – Ruth Martínez Rubio (**S**) Safo Eskola – Sajurv – Salut Monzó – Sandra Díaz – Sandra Nerpio – Sara – Sarini, Luka y Nour – Silvia Garai – Silvia Peña García – Sita – Sonia Ramiro Gonzalez – Susana Mateo – Sustrai (**T**) Tamy4k – Tatiana Retamozo – Tere Soto Bermejo – Teresa Castro Cómics – Teresa Muñecas – Teresa Rubio Cosio – Txema Antiguakoa – Txepeba (**U**) Unai Burguete – Uxue (**V**) Vanessa Álvarez González – Virginia Enebral (**X**) Xus Solsona – Xusa García (**Y**) Ylenia Marotta – Yolanda Barco


Entzuteko ipuinak:

MÁS MUJERES <https://masmujeres.org/eu/cuentos/>

Proiektuari buruz gehiago ezagutu nahi baduzu:

Facebook: Cuento PODEROSAS – Colección Valientas

Facebook: Las Poderosas Teatro





BOTERETSUAK ipuin irudidunak istorio errealean eta sinbolo anitzen bidez indarkeria matxistak identifikatzen eta saihesten laguntzen du. Ipuin askatzaile bat da, indarrez betea, ekintzara bultzatzen gaituena, orrialde bakoitzean oihukatzen duena.

VALIENTAS bildumako gainerako ipuinak bezala, benetan, ipuina baino askoz gehiago da. Adimenak eraldatzeko eta bihotzak sentsibilizatzeko tresna bat da. Horren bidez, jende gehiago inplikatu nahi dugu amesten dugun beste mundu posible honen eraikuntzan. Emakumeok indarkeria-mota guztietatik aske biziko garen mundua.

